

## **Lezoko liburutegiak ipuin kontaketak eskainiko ditu asteazkenero udazkenean**

Lezo. Andreone liburutegiak asteazkenero 18.15ean ipuin kontaketa saio bat eskainiko die Lezoko lau eta zazpi urte bitarteko haurrei. Lehenengo zita gaur bertan izango da eta udazkeneko azkena azaroaren 30ean izango da.

Honela, gaur Maite Frankok Dar-dar? Kar-kar! Beldurrezko ipuin barregarriak azalduko ditu. Datorren asteazkenean, berriz, Lupe Lekuonak Untxi belarriak eskainiko du. Azaroaren 2an, Lur Kortak Otsoen ipuinak kontatuko ditu. Azaroaren 9an, ordea, Ixabel Milletek Kamishibai lana aurkeztuko du. Astebete beranduago, azaroaren 16an, Pello Añorgak Animalien kontuak azalduko ditu. Hilaren 23an, Izaskun Mujikak Munduko ipuinak kontatuko ditu. Amaitzeko, azaroaren 30ean, berrikuntza bat: Annie Funny kontalariak About heroes and villains istorioa eskainiko du ingelesez.